

Era berean, aldaketa garrantzitsuak izan dira Goi Erdi Aroko populazioa aztertzeke ereduetan; Gasteizko Santa Maria Katedraleko indusketen emaitzek (Azkarate, Quirós: 27) panorama berri bat zabaldu dute gure lurraldean Goi Erdi Aroa aztertzeke, eta orain arte dokumentatu gabeko Goi Erdi Aroko herrixken finkamendurako eredu ezagutzeke parada eskaini digute, penintsularen iparraldeko arkeologiak gainditu beharreko irakasgaia baitzen<sup>1</sup> (Azkarate, Solaun 2003: 39).

## ARABAKO LURRALDEAREN ANTOLAMENDUA ERDI AROAN ZEHAR

Goi Erdi Aroko mendeetan zehar Arabaz hitz egitea eskatzen zuen ikusmolde hori nabari aldatuz joan zen, Araba txikiagoa zen edo handiagoa, eta Erdi Aroaren amaiera aldera gutxi gora-behera gaur egun dena bihurtu zen, 1463an Batzar Nagusiak osatu zirenean, hau da, orduantxe osatuko zen Arabaren “haurtzaro” gisa ezagutzen dena<sup>2</sup>. Bistan denez, XV. mende amaieran osatzen amaituko zen lurralde batez ari gara. Baina izenak, askoz ere lehenagokoa denak, ez du beti espazio bera adierazten. Gure azterketari begira, ondo ezagutu behar ditugu dokumentazioak aipatzen dizkigun espazioaren artikulazioak, alde batetik hautemandako errealitate material ezberdinak interpretatzeko tresnetako bat bihurtuko direlako eta beste aldetik horien kontrapuntu bihurtuko direlako zenbaitetan.


Garaietako “Araba” gisa ulertzen zuten hori ondo islatuta dago, aldeak alde, Goi Erdi Aroko dokumentuetan, baina oro har “historialariek ‘Araba nuklear’ gisa definitu dutenarekin bat dator (1. Irudia). Esparru horretatik kanpora geratzen dira Nerbio ibaiaren Goi-harana edo Ayalatarren lurraldea, Gaubea eta Omecillo ibaiaren arroa, Trebiñuko parte bat eta Errioxa Arabarra” (Peña 1988: “Sociedad y poder en la Álava altomedieval”, in *II Congreso Mundial Vasco. Pamplona, Príncipe de Viana*, 59-70).

Arabako lurraldea artikulatzeko orduan, guri oso erakargarria iruditzen zaigun interpretaziorako proposamen bat dago; J. A. García de Cortázarrek 1980. hamarraldian egindakoa da, eta haren arabera soziologiaren ikuspuntutik bi “Araba” izango ziren IX. eta XII. mende bitartean: bata, gaztelau-errioxarra deitu genezakeena, eskuarki Baia ibaiaren mendebaldeko eta Kantauriar Mendikatearen hegoaldeko lurraldeak hartuko zituen, eta besteak, Araba per se litzatekeena, Arabako Lautada hartuko zuen, ertzetako mendialdeak barne eta, agian, baita Aiara ere (García de Cortázar 1982: 89); gizartearen ikuspuntutik espazio hauek biak itxuraz bereizita daude, eta gizartearen mailakatzea bestelakoa izango zen alde bietan, XII. mendetik aurrera gizarte egiturak oro maila berdinean jarri ziren arte.

---

<sup>1</sup> Eta hein handi batean gainditu gabeko irakasgaia da oraindik, Xixongo Peñaferruz Gazteluan (Gutiérrez González 2003: 155) eta Madrilén (Vigil Escalera, 1997: 207-208) bururatutako lan aipagarri batzuk salbu.

<sup>2</sup> DÍAZ DE DURANA, J. R. (1996): *Álava en la Baja Edad Media*. Erein, Donostia.



Eskala

1. irudia. Arabako lurraldearen mapa, Urduñako harana (Bizkaia) eta Trebiñuko Konderria (Burgos) barne. Testuan aipatzen diren eskualdeak eta espazio batzuk adierazten dira (Iturria: Sánchez Zufiaurre 2004: 45).

## BIBLIOGRAFIA

AZKARATE GARAI-OLAUN, A.; QUIRÓS CASTILLO, J. A. (2001): **Arquitectura doméstica altomedieval en la península ibérica. Reflexiones a partir de las excavaciones arqueológicas de la catedral de Santa M. de Vitoria-Gasteiz**, in *Archeologia Medievale* XXVIII, 25-60 or.

AZKARATE GARAI-OLAUN, A.; SOLAUN BUSTINZA, J. L.: “Después del Imperio Romano y antes del año mil: morfología urbana, técnicas constructivas y producciones cerámicas”, in *Arqueología de la Arquitectura* 2 (2003), 37-46 or.

DÍAZ DE DURANA, J. R. (1996): **Álava en la Baja Edad Media**. Erein, Donostia.

GARCÍA DE CORTÁZAR, J. A. (1982): “La sociedad alavesa medieval antes de la concesión del fuero de Vitoria”, in *Vitoria en la Edad Media*. Vitoria-Gasteiz, Gasteizko Udala, p. 89-114 or.

SÁNCHEZ ZUFIAURRE, L. (2004): “Un método de prospección en Arqueología de la Arquitectura. La Arquitectura medieval “invisible”, in *Arqueología de la Arquitectura* 3, 185-197 or.

GUTIÉRREZ GONZÁLEZ, A. (2003): *Peñaferruz (Gijón) El castillo de Curiel y su territorio*, Gijón, VTP Editorial.

PEÑA, E. (1988): “Sociedad y poder en la Álava altomedieval”, in *II Congreso Mundial Vasco*. Pamplona, Príncipe de Viana, 59-70 or.

VIGIL ESCALERA, A. (1997): “La Indiana (Pinto, Madrid): estructuras de habitación, almacenamiento, hidráulicas y sepulcrales de los siglos VI-IX en la marca media”, in **“XXIV Congreso Nacional de Arqueología”**, Vol. 5, 205-212 orr.